

Jose Mari Olazabal Iñurrita

*Andoain,
Gipuzkoa
(1928-2015)*

Aurkibidea

Biografia



Andoainen jaio zen, eskola kalean. Zortzi senidetan bigarrena, Andoainen bizi izan da beti. Ama baserritarra zuen eta aita, berriz, azpeitiar okina. Hamabi urte arte "La Salle"n ibili zen eskolan eta gero Sapan sartu zen lanean. 1964-1971 bitartean Andoaingo kontzejal izan zen. Maila ekonomikoan lan handia egin zuten garai horretan. Andoainek urte haietan zuen biztanle kopurua bikoiztu egin zen legealdi horretan.

Zintak

AND-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-03-02
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Leturia, Ane

AND-040

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-04-24
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Gisasola, Jaione
- **Emalea:** Romero, Petri

AND-041

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-04-25
- **Iraupena:** 57 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Romero, Petri

AND-042

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-05-02
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Romero, Petri

AND-043

- **Proiektua:** Ahoz aho, belaunez belaun
- **Elkarrizketatzailea(k):**
- **Data:** 1996-05-02
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Romero, Petri

Pasarteak

1. Andoain asko aldatu da

- **Erref:** AND-004/002
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:02:26. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Andoain asko aldatu da Jose Mari umea zenetik: lehen 3.000-4.000 biztanle zituen, baserri gehiago zegoen, kale bakarra eta luzea...

2. Jaiotetxearen egitura

- **Erref:** AND-004/005
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:07:34. **Bukatu:** 00:09:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Bere jaiotetxea nolakoa zen deskribatzen du. Maizter ziren etxe hartan. Garai hartan gutxi ziren etxeen jabeak. Etxean baratztea eduki arren, nagusiarena zenez ezin izaten zuten erabili.

3. La Salleko heziketa txukuna

- **Erref:** AND-004/008
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:12:52. **Bukatu:** 00:15:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

La Sallen ikasi zuen 12 urtera arte. La Salle eskola serioa zen eta irakasten txukunak ziren. Hara mutilak bakarrik joaten ziren; neskentzat beste eskola batzuk zeuden. Kontxa Arretxeren eta doña Juanitaren eskolak gogoan ditu.

4. La Salletik SAPAra lanera

- **Erref:** AND-004/009
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:57. **Bukatu:** 00:17:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak

Laburpena:

<p>1935ean hasi zen ikasten La Sallen, eta handik gutxira lehertu zen gerra. 12 urte zituela, lanean hasi zen Soraluzeko SAPA lantegian, etxean beharra baitzegoen.</p>

5. Pilotan jokatzea gustuko

- **Erref:** AND-004/010
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:17:56. **Bukatu:** 00:20:01
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Oso gustura ibiltzen zen pilotan jokatzeko. Andoaingo txapelketa bat irabazi zuen, garai hartan Andoainen zen pilotari onena (Joxe Manuel Garmendia) zuela lagun. Pilotan non jokatzeko zuten azaltzen du.

6. Pilota-partidua ikusteko ohitura ezinbestekoa

- **Erref:** AND-004/012
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:20:25. **Bukatu:** 00:22:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Pilotan arkupe batzuetan jokatzeko zuten; eta nahiz eta lekua aldrebes samarra izan, gustura ibiltzen ziren. Kontzejupean izaten ziren pilota-partidu batzuk eta jende asko joaten zen haiek ikustera.

7. Andoainen festa faltarik ez

- **Erref:** AND-004/014
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Gaztetan ere orain ospatzen diren festak izaten ziren: Santa Kutzak, San Juanak, San Pedroak, San Estebanak... Urte guztian izaten ziren festak.

8. Festetako musika

- **Erref:** AND-004/016
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:27:28. **Bukatu:** 00:28:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Festa batzuetan, orkestak, orkestrak, banda militarrik... etortzen ziren kontzertuak ematera.

9. Prozesioak asko eta serioak

- **Erref:** AND-004/017
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:28:16. **Bukatu:** 00:30:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Lehen prozesioak asko eta serioak izaten ziren. Herrikoek parte hartzen zuten prozesioan, haietako bat Jose Mari bera. Prozesioko pertsonaiak zein ziren aipatzen du.

10. Mezan latinez, nahiz eta ulertu ez

- **Erref:** AND-004/020
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:32:38. **Bukatu:** 00:33:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

Mezan latinez egiten zen, nahiz eta ezer ulertu ez. Jose Mari mezalagun izan zen.

11. Ezkontzarako prestaketak

- **Erref:** AND-004/022
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:35:38. **Bukatu:** 00:38:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Ezkontzeko prestaketak nolakoak izaten ziren azaltzen du: ezkontzako eguna oso garrantzitsua zen; ohitura handia zegoen ezkondu aurretik Tolosako Frantziskotarrengana joateko konfesatzera. Emakumeek burutik gizonaren sorbaldara zihoan zapi bat jartzen zuten: emakumeak gizonaren menpe egon behar zuen esanahia ematen zioten horri.

12. Mugimendu apostolikoa

- **Erref:** AND-004/024
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:40:29. **Bukatu:** 00:45:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa

Laburpena:

<p>Mugimendu apostolikoei buruz hitz egiten du: sekularrek Elizan bere tokia izateko mugimendua izan zen. "Acción Católica", "Baserri gaztedi"... aipatzen ditu.</p>

13. Elizako txartelak eta bulak

- **Erref:** AND-004/025
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:45:14. **Bukatu:** 00:47:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa

Laburpena:

Elizako txartelak eta bulak zer ziren aipatzen du. Bulak erosi egin behar ziren.

14. Hiletak eta heriotzaren inguruko ohiturak

- **Erref:** AND-004/027
- **Iraupena:** 0:04:21. **Hasi:** 00:49:43. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- Bestelako kontuak » Historia orokorra

Laburpena:

<p>Nor bait hiltzen zenean, hilbeila egiten zen. Hiletako ohiturei buruz hitz egiten du. Manuel Lekuonak asko ikertu zuen historia, eta bidegurutzeak oso garrantzitsuak izan direla esaten zuen. Santa Kruz zergatik dagoen leku horretan azaltzen du Jose Marik.</p>

Transkripzioa

-Ordun gorputza... belatoriyua edo... etxea etortzen zan jendea errosariyua errezatzea ta hola?

-Bai.

-Han izaten zan kandelak eta erramu hostua ta, holako zerak izaten zian gorputzan ingurun?

-Bai.

-Juten zanak aitagure bat errezatu edo...

-Bai.

-Ta gero gorputza elizaa eamateko edo, elizbidiak-eta izaten zian, baserritak eta holako tokitatik?

-Hor ohittura diferentiak zeuden basarritan ta kaletan. Kaletan, por ejemplo hemen, entiarro garaia ailleatu, bueno, ordulaurden bat lehen hartu bizkarrian ta tapa-tapa elizaa. Elizan jarri han, entiarua bukatu, berriz ´e bizkarrian hartu, zuzenian kanposantua. Gehienak kanposantuk elizan ingurun izaten zian. Han erresponso bat errezatu hillobin, ta hala bukatzen zan.

-Urnitan aittua dakat...

-A! Barkatu.

-Bai, segi, segi.

-Basarrin ohittura bat bazeon, hoi nik neonek ikusiya, lehen esan dizut monagillua izandu nitzala, ta gorputzan billa apaizakin monagillua juten

zan, ohitura hala zan. Nik esango nuke basarrin bat... bueno... Gurutze bat hartu, ta apaizakin baserrira. Baserrin errespontso bat errezatu, hartzen zuen lau gizasemek, monagillua gurutziakin aurrian, ta bidekutzetan geldittu ta bidekutzeko pertsona batek mahai bat ateratzen zun ta gorputza han jartzen zan. Aitagure bat errezatu, berriz hartu hilla bizkarrian ta elizaa. Hoi nik neonek ezaututakua. Ta gero, historiagilleak eta esaten due hemen adibidez oso jatorra gendun Don Manuel Lekuona, aitzera ba al dakazu? Kategoriko gizona zan. Ta gero hemen eskrituak eta asko dauzka liburuk eta. Harek esaten zun zer inportantziya zeukan oin dala urte batzuk bidekutziak. "Los cruceros". Ta harek esaten zun, biharbaa, Santa Kutz-ko ermita´re jarriya daola daon tokin bi erriyo hor biltzen dialako: "río Leizarán y río Oria". Hor biltzen dia, hain zuzen, ermita daon tokin. Hor fijatzen basea... Andoain gutxi ezautzen dezu zuk.

-Bai, bai, badakit, hara aldea dau, hor Alegi aldea ateatzen zeala.

-Hemengo zubiya dator, hemendikan berrehun metroa dao zubi bat, ta hor dator Leizaran. Ta berrehun bat metro o hola beherago biltzen da "río Oria". Oria askoz inportantegua, zeatik datorrena, Tolosaldetikan, ta biyak biltzen dia.

-Ta Santa Kruz...

-Santa Kruz hor jarriya dao.

-Beitu.

15. Santa Kruzko irudia eta kanta

- **Erref:** AND-004/028
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:54:04. **Bukatu:** 00:56:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Santa Kruzko irudiak 5-6 mende ditu. Santa Kruzko kanta errezitatzen du.</p>

16. Jaiotza egunean umeak kalez kale abesten

- **Erref:** AND-004/029
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:56:14. **Bukatu:** 00:57:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Gabonetan kanta-lehiaketak egiten ziren elizan. Jaiotza eguna ospatzen zen bereziki: umeak kalez kale ateratzen ziren abesten. Kanta gehienak euskaraz izaten ziren. La Sallen euskaraz eta gaztelaniaz ikasten zuten.

17. Gerra bat-batean eta bala hankan ezustean

- **Erref:** AND-004/031
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 00:58:13. **Bukatu:** 01:01:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak

Laburpena:

Gerra bat-batean etorri zen, bonbardaketak bat-batean hasi ziren. Jose Mari jolasean zebilela, bala galdu batek jo zion hankan, falangista batek medikuarengana eraman zuen, eta 15 egunean egon behar izan zuen etxean sendatu arte.

18. Gerra hasi eta paisaia tristetu

- **Erref:** AND-004/032
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 01:01:11. **Bukatu:** 01:03:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)

Laburpena:

Bonbardaketak hasi zirenean, ibai ertzean lehertzen ziren bonbak. Parapetoak non zeuden azaltzen du. Paisaia tristea zegoen orduan. Jende askok egin zuen ihesi Andoaindik. Aita abertzalea zen, eta kuartelera deitu zuten: isuna jarri zioten gorriek botatako zubia altxatzeko.

19. Zinegotzi izan zeneko Andoain

- **Erref:** AND-004/034
- **Iraupena:** 0:02:58. **Hasi:** 01:04:20. **Bukatu:** 01:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Andoainen zinegotzi egon zen 1964-1971 bitartean. Andoain denbora gutxian asko hazi zen: Soria eta Extremadura aldetik etorri zen jendea gehienbat. Jende-oldea izan zen hura. Ekonomia-gaiak izan zen garai hartako borroka.

20. Udaletxearen egitura erabakitzeko sistema

- **Erref:** AND-004/035
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 01:07:18. **Bukatu:** 01:09:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak

Laburpena:

Zinegotzi sartu zenean, hauteskundeak izan ziren. Udaletxearen egitura nola erabakitzen zen azaltzen du. Gobernadore zibilek garai hartan botere handia zuten.

21. Andoaingo biztanlerian aldaketa

- **Erref:** AND-040/001
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Jose Marik gaztea zenean Andoain nolakoa zen azaltzen die gazteei.

22. Andoaingo kaleetan

- **Erref:** AND-040/002
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:02:12. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Andoaingo kaleak duela 40-50 urte nolakoak ziren azaltzen die gazteei. Kale nagusiak zeintzuk ziren eta non zeuden.

23. Klean jolasean

- **Erref:** AND-040/005
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:04:42. **Bukatu:** 00:05:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Kale berrian garai batean ur depositoa non zegoen azaldu, eta bertan pilotan eta futbolean ibiltzen zirela kontatzen du.

24. Auto gutxi eta bizikleta asko

- **Erref:** AND-040/006
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:05:37. **Bukatu:** 00:06:55
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Duela 50 urte Andoainen hamar auto ere ez zeuden. Jende asko bizikletan ibiltzen zen; horregatik ibiltzen ziren errepide alboan lasai jolasten.

25. Amerikara jodakoak eta Euskal Herrira etorriak

- **Erref:** AND-040/007
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:06:55. **Bukatu:** 00:09:29
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara joateko arrazoiak
- Ekonomia eta industria » Boom industrialak
- Ekonomia eta industria » Krisi industrialak

Laburpena:

<p>Andoaingo herrian duela 60-70 urte langabezia handia zegoen, eta pertsona asko Ameriketara joan behar izan ziren. Hala ere, gerra amaitu ondoren lana sortu zen eta Galizia, Extremadura eta Soriatik jende ugari etorri zen.</p>

26. Pastela erosteko trikimailuak

- **Erref:** AND-040/010
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:12:31
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Jose Marik gaztetan bere pagaren inguruko anekdotak kontatu dizkie gazteei: lagunekin bildu eta bosten artean pastela erosi eta denen artean banatu zuten.

27. Kale etxean alokairuan

- **Erref:** AND-040/011
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:12:31. **Bukatu:** 00:13:32
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jose Marik gazteei beraien etxean dituzten abantailak gogorarazi eta bere gaztetako garaian nola bizi ziren azaldu die. Garai hartan, herritar gehienak alokairuan bizi zirela kontatzen du.

28. Baserrian janari bai

- **Erref:** AND-040/012
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:13:32. **Bukatu:** 00:14:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian bazen jatekoa, kalean ez bezala txerria hiltzen zutelako, Rokek kontaktzen duenez. Igandetan kanpotik ekarritako garbantzua jaten zituzten.

29. Gose garaian tortak

- **Erref:** AND-040/014
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:15:30. **Bukatu:** 00:16:25
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gose garaiko urteak nolakoak ziren kontaktzen die gazteei Jose Marik. Ogiaren ordeztortak bezalako batzuk jaten zituztela.

30. Tuberkulosia zabaltzen

- **Erref:** AND-040/015
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:16:25. **Bukatu:** 00:17:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Tuberkulosia inguruan nola zabaltzen zen kontaktzen du Jose Marik. Gazte asko tuberkulosiaren ondorioz hil zirela dio.

31. Eskolan egunero

- **Erref:** AND-040/020
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:21:54. **Bukatu:** 00:24:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Etxean ez zen telebistarik, Europa guztian. Irratia ere Jose Marik 20 urte zituela ekarri zuten. Ostegun arratsaldetan eta igandetan soilik izaten zuten

jai eskolan. Etxerako lanak ere egunez egin behar izaten zituzten, bonbila txikiak soilik izaten zituztelako.

32. Andoainen lehengo eskolak

- **Erref:** AND-040/021
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:24:26. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Andoainen Jose Marik 5 urte zituela La Salle eskola sortu zela dio. 1933. urtetik herri eskola eta La Salleko eskola izan zituen. Haurrentzako haurtzaindegia jarri zuten monjek, tela fabrikako emakumeen seme-alabak zaintzeko.

33. Ikasketa maila bajuak gehienek

- **Erref:** AND-040/023
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:28:20. **Bukatu:** 00:31:34
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ikasketa garaian gazte gutxi iristen zirela Batxilergora kontatzen du. 14 urterekin lanean hasten zirela dio Jose Marik. Gehiago ikasi nahi zuenak gaueko eskolara joan behar izaten zuen lanetik irten ondoren. Iñakik ofizio bat ikasteko aukera izan zuen, eta zorte handiagoa izan zuela dio.

34. Lan baldintzak urte oparoetan

- **Erref:** AND-040/024
- **Iraupena:** 0:02:52. **Hasi:** 00:31:34. **Bukatu:** 00:34:26
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Ekonomia eta industria » Lantegiak

Laburpena:

Hamalau urterekin lanean hasten ziren eta langabezia geroago hasi zela dio Jose Marik. Hilabetean 90 pezeta irabazten zituela dio. Garai hartan oporraldiak 7 egunekoak izaten ziren urte guztian.

35. Edonon jolasean

- **Erref:** AND-040/025
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:34:26. **Bukatu:** 00:35:35

- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Kirola » Futbola
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Irrati eta telebistarik eduki ez arren, ez zirela aspertzen dio Jose Marik. Futbolean edo pilotan edozein paretetan jolasten zirela kontatzen du.

36. Igandetako entretenimentua

- **Erref:** AND-040/027
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 00:37:59. **Bukatu:** 00:41:41
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Antzerkia
- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Igandeak nola pasatzen zituzten kontatzen du Jose Marik. Goizean mezetara joan, eta arratsaldean zinera joaten ziren txandaka. Zine mutua izaten zen. Bizimodua kalean egiten zutela azaltzen du Iñakik. Antzerkia ere ikusten zuten.

37. Luxu gabeko bizitza

- **Erref:** AND-040/028
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:41:41. **Bukatu:** 00:42:21
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Andoain eta inguruko herriak pobreak izan arren, ez zutela diru asko behar izaten dio Jose Marik. Gose garaia pasa ondoren ere luxurik ez zegoen.

38. Izen euskaldunik ez

- **Erref:** AND-040/032
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:44:07. **Bukatu:** 00:45:28
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

Euskaraz hitz egiteko oztopoak izan zituztela kontatzen du Jose Marik. Euskarazko izenak jartzea ere debekatuta zegoen, eta erregistroan gazteleraz idatzi behar izaten ziren.

39. Euskara bizirauten

- **Erref:** AND-040/033
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:45:28. **Bukatu:** 00:47:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Euskara Andoainen gurasoek seme-alabei hitz egin izan dietelako eta kalean euskaraz egiten zutelako ez dela galdu dio Jose Marik.

40. Andoaingo eskoletan banatuta

- **Erref:** AND-040/042
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 00:52:06. **Bukatu:** 00:54:27
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Neska eta mutilak banatuta joaten zirela eskolara azaltzen du Jose Marik. Eskolak non zeuden kontatzen du Iñakik, ikasleek neskek non ikasten zuten jakin dezaten.

41. Eskolako zigorrak

- **Erref:** AND-040/045
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:56:01. **Bukatu:** 00:57:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

Ikastetxean ez zituztela jotzen diote, baina entzun izan dutela nola zigortzen zituzten. Jo ez arren, paretari begira izaten zituzten. Zigorrak gaiztoak zirelako zirela dio Iñakik, ez euskaraz egitearren.

42. Elizako ohiturak

- **Erref:** AND-040/049
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:58:37. **Bukatu:** 01:00:44
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Igandero elizara joaten zirela azaltzen du Jose Marik. La Salleko eskolan ikasten zutenean hamarretako azken mezara joaten ziren.

43. "Tisisa" zutenei bisita

- **Erref:** AND-040/051
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:01:22. **Bukatu:** 01:03:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Lanean hasi eta gero, Jose Marik hilabetez behin igandetan tuberkulosia, "tisisa" deitzen ziotena, zuten gaixoak bisitatzen zituen.

44. Maximo de Agustin tuberkulosiaz gaixo

- **Erref:** AND-040/052
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 01:03:11. **Bukatu:** 01:05:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Maximo de Agustin tuberkulosiarekin gaixotu zen, eta "penizilina" behar zuenez Jose Marik tranbian eraman ziola kontatzen du.

45. Andoaingo jaiak

- **Erref:** AND-040/053
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 01:05:40. **Bukatu:** 01:09:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa

Laburpena:

Iñaki udaletxean jaiak antolatzen egon zen urte askoan. Jaietan jende asko inguruko herrietara joaten zen egitarau hobeak zirelako. Andoaingo jaietan, hala ere, idi demak, asto karrerak eta bestelakoak izaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com